

## **Gorrotatzen dugun gerra**

*El Mundo del País Vasco*, 1991-06-07.

Gure hauteskundeetako txapligu hotsek egin ez zituzten hilak eragin ditu gero euskal jarrera erradikal baten izenean jarritako lehergailu ikaragarri batek Catalunyaiko Vic hirian, euskal frentetik urrun, eta hauetako batzu haurrak izateak handitzen du krimena. Errudunak direlakoan berehala akabatu dituzte tiroz bi gazte. Urteak daramatzagu dialektika itsu honetan. Hitzen ordez tiroak! Nondik nora datorren izugarrikerria hau? Galdera erraza da; erantzuna, ez hainbeste. Gaurko indarkeria ez da gaur sortua; Francoren altxamenduaren ondorio da. ETA, giza eskubide guztien eta bereziki gure herriaren zanpatzaile izan zen diktadura gupidagaitz eta amaiezinari erantzuteko asmotan sortu zen 1959an, gerra amaitu eta 20 urte geroago!, klandestinitatean zegoen alderdi abertzale batetik. Geroztik ETAREN borroka nondik nora ibili den ezaguna da. Espainia osoa, eta mundua ere, bere alde zegoen Burgoseko judizioan, 1970an. Honek ez duela gaurko hilketa kriminala zuritzen?; ez, baina ez ditugu besteak ahaztuko.

ETA aspaldi dabil pake eske. Beharrea aurkitzen delako? Egia, seguraski. Baina zenbat heriotz gehiago kontatu behar dira erabaki ausart baten bidez gerra honen amaiera ikusteko! Ahulduak ikusten dituztelako, pakebidea alde batera uztea zuzena da?, ala beste mendeku berri baten nahikari beltza? Amedo berak esan du: hemendik irteteko poliziazko eta politikazko bideak, biak, beharrezko direla. Presa dugu denok gorrotozko bide honetatik irten eta garantia duen mahai batean egiazko pakea lortzeko. Orduan irabazi dezake norbaitek Pakearen Nobel Saria.